

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

**“KALE BERRIAK”: KALE HEZKUNTZAREN HARREMAN
HEZITZAILEEN BILAKAERA SARE GIZARTEAN**

Egilea: Ane Karmele Menéndez Ruiz de Angulo

Zuzendaria: Irantzu Fernández Rodríguez

Leioan, 2018ko maiatzaren 30ean

A U R K I B I D E A

Sarrera.....	3
1. Marko teorikoa	5
1.1. Kale hezkuntzari hurbilpen teorikoa.....	5
1.2. Komunikazioa gaur egun Sare Gizartean	9
1.3. Komunikazioa hezkuntza harremanetan.....	11
2. Metodologia.....	13
2.1. Helburuak eta hipotesiak	13
2.2. Metodologia kualitatiboa.....	14
2.3. Elkarrizketa sakonak.....	15
2.4. Lagina	15
2.5. Lanaren garapena.....	16
3. Emaitzak	17
3.1. Harreman hezitzailearen ezaugarri nagusiak	17
3.2. Harreman hezitzaileak jasandako aldaketak.....	19
3.3. Sare Gizarteak harreman hezitzailean eragindako indar-guneak eta ahuleziak ..	21
3.4. Kale hezitzaileen erronkak Sare Gizartean.....	22
4. Ondorioak	24
Bibliografia.....	26
ERANSKINAK	28
Eranskin 1	28
Eranskin 2	29
Eranskin 3	31

“KALE BERRIAK”: KALE HEZKUNTZAREN HARREMAN HEZITZAILEEN BILAKAERA SARE GIZARTEAN

Ane Karmele Menéndez Ruiz de Angulo

UPV/EHU

Ikerketa honen bitartez Sare Gizarteak kale hezkuntzaren harremanetan izandako eragina eta testuinguru honetan kale hezitzaileek dituzten erronkak aztertu ziren. Horretarako kale hezkuntzaren eta Sare Gizartearen inguruko baieztapen teorikoak izan dira oinarri. Metodologia kualitatiboaren bitartez, Vitoria-Gasteizeko bost kale hezitzaileei egindako elkarrizketa sakonekin lortutako informazioa bildu zen. Modu honetan, kale hezitzaileek harreman hezitzaileetan eta esku-hartzeetan bizi dituzten aldaketak ikertu ziren; sare sozialek kale hezitzaileen harremanak arlo sozialetik arlo digitalera zabaldu dituzte. nahiz eta kale hezitzaileen eta adingabeen arteko kontaktua aurrez aurre berdina izan, sare sozialei esker, kale hezitzaileek beti “hor” egoteko aukera dute.

Kale hezkuntza, hezkuntza harremana, Sare Gizartea, komunikazioa, sare sozialak

Mediante esta investigación se examinaron la influencia de La Sociedad Red en las relaciones de la educación de calle y los retos que se presentan a educadoras/es en ese contexto. Para ello, se tomaron como base conceptos teóricos sobre la educación de calle y La Sociedad Red. A través de la metodología cualitativa se analizó la información recibida de las entrevistas en profundidad hechas a educadoras/es de calle de Vitoria-Gasteiz. De este modo, se investigaron cambios surgidos en relaciones e intervenciones; las redes sociales han ampliado las relaciones desde el ámbito social hasta el digital. Aunque el contacto entre menores y educadoras/es presencial sea el mismo, mediante las redes sociales los/las profesionales pueden “estar ahí” siempre.

Educación de calle, relación educativa, La Sociedad Red, comunicación, redes sociales

This investigation examined the influence of the Network Society in the educational relations of street education, and the challenges it presents to the street educators in this context. To do so, theoretical concepts of street education and Network Society were used as a basis. Through qualitative methodology, the information received from the interviews of street educators from Vitoria-Gasteiz was analyzed in depth. This way, the changes that occurred in relations and interventions were investigated; social media having extended relations from a social to a digital scope. Even though the contact between minors and the educators is the same in the street, social media allows professionals to always be there.

Street education, educational relations, Network Society, communication, social media

Sarrera

Gizarte hezkuntzako graduan zehar, kale hezkuntzari buruz behin baino gehiagotan hitz egin ziguten; kale hezkuntza, gizarte hezkuntzaren arlo bat izanda, gizartearen

eraldaketa bultzatzen du pertsonen eta ingurune irekiaren potentzialtasunen bitartez. Gaur egungo ingurune ireki fisiko horretaz gain, ingurune digitala ere aurkitu dezakegu: sare sozialak. Eremu fisikoaren zabalpen hori dela eta, kale hezkuntzako profesionalak bi mundu (fisikoa eta digitala) hauetara moldatzen dabilta.

Beraz, ikerketa honen gai nagusia “Kale Berriak” deritzenak dira. “Kale Berriak” kale hezitzaileen esku-hartze eremua da, sare sozialak barne hartzen dituen. Izan ere, “Kale Berrien” bitartez mundu fisiko soziala eta mundu digitala bat egiteko gai dira. Bi mundu hauen fusioari eta sare sozialek eskaintzen duten erabilgarritasunari esker kale hezitzaileen eta adingabearen arteko harreman hezitzailea eraldatu daiteke. Testuinguru honetan, kale hezitzaileek ere behatzeko eta esku-hartzeko ikuspuntu ezberdinak izateko aukerak dituzte edota bestelako egoeratan, komunikazioa errazteko aukera dute bat-bateko laguntza emanaz eta erantzunak jasoz. Azken batez, “Kale Berriek” kale hezitzaileei “hor” egoteko aukera errazten diete.

Beraz, “Kale Berriak” izendatu dugu lana. Izan ere, hau da Vitoria-Gasteizeko “Kale Heziketako Programa” barnean parte hartzen duten kale hezitzaileek, gaur egun, sare sozialei erreferentzia egiteko erabiltzen duten kontzeptua. “Kale Berrien” inguruko interesa piztu zitzaidan “Gasteizko Kale Heziketako Udal Programa: Ibilbide baten historia eta etorkizuneko proiektzioa” ikerketa lanean¹ parte hartu nuenean. Ikerketa horretan Vitoria-Gasteizeko udalak², IRSE-Araba erakundeak³ eta UPV/EHUko Gizarte Hezkuntzako Graduko Kontseilu/Behatokiko irakasle⁴ eta ikasleek⁵ parte hartu genuen; Vitoria-Gasteizeko Kale Hezkuntzako Udal Programa ezagutzeko eta optimizatzeke helburuarekin.

Modu honetan, ikerketa honen bitartez Sare Gizarteak kale hezkuntzaren testuinguruko hezkuntza harremanetan izan duen eragina aztertzen da. Hau lortzeko, ikerketa lau atal ezberdinetan banatzen da: marko teorikoa, metodologia, emaitzak eta ondorioak. Marko teorikoan hiru gai lantzen dira: kale hezkuntza (kontzeptua, helburuak eta metodologia), Sare Gizarteak eta hezkuntza harremanak. Metodologiari dagokionez, elkarrizketa sakonen eta metodologia kualitatiboaren erabilpenaren justifikazioa ez ezik,

¹ Koordinatzaileak: Maite Arandia eta Aintzane Cabo

² Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren saila: Elena Redondo eta Antonio Jesús Ruiz

³ Lorenzo Martínez, Loly Rodríguez eta Iñaki Luzuriaga

⁴ Mari Nieves González eta Iñigo Rodríguez (Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila). Karmele Artetxe, Saioa Bilbao eta Irantzu Fernández (Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila). Nekane Beloki (Soziologia eta Gizarte Langintza Saila).

⁵ Virginia Gómez, Lara Sierra, Arrate Morales, Ane Karmele Menéndez eta Oihane Ortiz de Zarate

elkarrizketen lagina eta lanaren garapena aurki dezakegu; kale hezkuntzako harreman hezitzaileen inguruko ezaugarri eta aldaketa nagusiak identifikatzeko helburuarekin. Emaitzetan, elkarrizketan lortutako informazio kualitatiboa lau pasarte ezberdinetan banatuta dago. Amaitzeko, hipotesiekin eta emaitzekin zuzenki lotuta dauden ondorioak aurki daitezke.

1. Marko teorikoa

1.1. Kale hezkuntzari hurbilpen teorikoa

Faustino Guerau de Arellano-k eta José María Plaza-k (1982) adierazten duten moduan (Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018), kale hezkuntzak hezkuntza prozesu etiko moduan kontuan hartzen du, non askatasuna ematen eta jomuga indibidualak zein sozialak lortzeko bidea eraikitzen den. Prozesu horri esker, askatasuna eta konfiantza oinarri moduan hartuta, laguntza harremanak eskaintzen dira. Izan ere, “onarpenaren pedagogia” praktikan jartzen da, non pertsonen barnean dauden ezaugarri positiboak bilatzen eta nerabeek eta gazteek dauzkaten gaitasunen aurkikuntza sustatzen diren. Beti ere, hauek ahalik eta gehien garatzeko helburuarekin (Blanco, García eta Quintanar, 2010).

Kale hezkuntzaren praktikari esker ere gure gizartea eraldatu daiteke. Modu honetan, pertsonen, taldeen eta auzoen gaitasunak garatzen diren heinean, garapen maila altuagoak, osasuna, integrazioa, justizia eta elkarkidetasuna lortzeko bidea lortzen da. Beraz, esan dezakegu kale hezkuntza herriaren sozializazio zein aisialdi eremuetan garatzen den esku-hartze sozio-hezitzaile bat dela (Blanco, García eta Quintanar, 2010).

“Guía Internacional sobre la educación de calle en el mundo” (2008) dokumentuan adierazten den moduan, kale hezkuntza ez da helburu bat, bide bat baizik. Epe luzerako ikuspegia duen ekintza sozio-hezitzaile bat da, pertsonak dauzkaten behar, eskari eta jomugetan oinarritzen dena eta pertsonak haien bizitzan protagonista eta eraikitzaile bihurtzen dituen (Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018). Horrez gain, konfiantzan, errespetuan eta autodeterminazioan oinarritzen diren harreman hezitzaile hauek izaera boluntarioa ere izan dezakete. Izan ere, eremu informalean eraikitzen dira (Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018).

Dynamo Internacional-ek⁶ (2014) egindako elkarrizketetan oinarrituz, kale hezkuntza gutxi ezagutzen den lan egiteko modua dela adierazten da:

“Lanbide honek auzo bat, honen ohiturak, jendea, galderak eta kezak ezagutzeko ikasketa egitera behartzen zaitu; pertsoneri hurbiltzen ikastea eta bakardadearen inguruan ikastea. Batzuetan hezitzaileen presentziaren arrazoiak eta hauen praktika ere zalantzan jarri behar da. Denborarekin, trukeekin eta konfiantzarekin gauzak aldatuko direla ustea ezinbestekoa da; berritzaileak izaten saiatu behar gara, inprobisatu, pertsona eta errealitate ezberdinei aurre egin behar diegu, entzuten, informatzen eta pazientzia garatzen jakin behar dugu. Beraz, kale hezkuntza aldaketa emozionalak eragiten dituen prozesua ere bada; batzuetan poza sentitu daiteke eta beste batzuetan pena, gertatuko dena ezin da auresan. Askatasun adierazpena bideratzen duen espazioa antolatu behar da, ikusezina ikusgai egiten duen espazioa, alegia. Kale hezkuntzak ere espazio publiko dinamiko irekitzen du, pertsonak haien bizitzaren protagonistak bihurtzen eta hau lortzeko baliabideak eta tresnak eskainiz. Kale hezkuntza aire freskoa da, baita egun grisetan ere” (Dynamo Internacional, 2014, or. 34).

Hori ez ezik, kale hezkuntza giza eskubideen inguruko hezkuntza bermatzeko modua da. Izan ere, edozein testuinguruan giza eskubideak errespetatzea eta bermatzea ezinbestekoa da. Kale hezitzaileek, pertsonak justiziaz baliatu daitezten eta haien eskubideak baliotan ezarri ditzaten, eskubide hauek babestu behar dituzte. Modu berean, kale hezitzaileen eskubideak ere errespetatu behar dira: biolentzia ez pairatzeko eskubidea eta bizitza pribatu zein familiarra babestua izateko eskubidea, besteak beste. Izan ere, profesio hauetan mugak gainditzeko arriskua egon ez ezik, sekretu profesionalak ere lege batzuen aurka egin beharko du (Dynamo Internacional, 2014).

Lan egiteko espazioari dagokionez, “Guía Internacional sobre la educación de calle en el mundo” (2008) dokumentuari jarraiki, kale hezitzaileen bulegoa kalea da. Kalea espazio publiko bat da, non bakoitzak, haren egoeraren edo beharren arabera, honetaz baliatu daitekeen. Modu honetan, norbanako bakoitzak kaleari zentzu bat edo beste bat emango dio. Ondorioz, jabetze modu ezberdinen zein pertsonaien negoziazioen objektu bihurtu daiteke kalea (Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018). Honekin batera, kale hezitzaileak espazio honetan barneratzean, pertsonak eta taldeak kalearen jabe nola egiten diren ikusiko du. Ikuspuntu honi esker, pertsonak kalea alde-egite, babes, trantsizio, arriskuak hartzeko, adierazpen, aldarrikapen, ikasteko, lan egiteko, plazer zein sufrimendu espazio moduan onartu ditzaketela ikusi daiteke. Hau da, pertsona

⁶ Dynamo Internacional (2014). Historias de calle: Testimonios de trabajadores sociales de calle del mundo.

bakoitzak kaleari ematen dion zentzua eta erabilpena edonolakoa izan daiteke (Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aiptatuta, 2018).

Kalea kontzeptuaren inguruan hitz egiten dugunean, terminoa hirigileek baino modu zabalagoan har dezakegu; kalea espazio itxien eta instituzionalizatuen, familia etxeen, eskolen edota lan esparruen kontrajartze moduan ere ulertu daiteke (Blanco, García eta Quintanar, 2010). Izan ere, kaleak ez dira bakarrik etxeak, espaloiak eta bideak. Kalea bizi da. Kalea bidegurutzeei, begiradei, plazan jolasten duten umei, futbol zelaiei, edota eskolaren zein kafetegi baten aurrean elkarrekin hitz egiten duten gazteei esker bizi daiteke. Kalea ez da definitzen, identitaterik ez dauka. Kaletik bizi diren pertsonen esperientzien, kulturen edota istorioen bitartez kalearen identitatea osatu dezakete. Kalea mugitzen, bizitzen, irri egiten, negar egiten, abesten, dantzatzen eta oihu egiten du; nahiz eta humanoa ez izan, humanoa den guztia islatzen du (Dynamo Internacional, 2014).

“Gasteizko Kale Heziketako Udal Programa: Ibilbide baten historia eta etorkizuneko proiektzioa” (Arandia eta Cabo (koord.), 2018) txostenean baieztatzen den moduan, kale hezitzaileen eta herritarren arteko harreman estuak intentzio formalen eta itxura informalaren arteko orekari esker sortzen dira. Horrekin batera, “Guía Internacional sobre la metodología de la educación de calle en el mundo” (2008) dokumentuari jarraiki (Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018), honako hauek dira kale hezkuntzaren helburuak:

- Eskuraezina eskuratzea. Kale hezkuntzaren helburua laguntza edo euskarria behar duten banakoei edo umeen, gazteen zein helduen taldeei baliabide ezberdinak zuzentzea da. Izan ere, dauden elkarte edo instituzio batzuk ez dira zuzentzen biztanle guztiengana.
- Motibazioa eta akonpainamendua bultzatzea. Akonpainamendua behar duten pertsonekin ekintza alternatiboak (eskola, lana eta aisialdia, adibidez) hasteko edo aukeratzeko esku-hartzea burutzea. Behar izatekotan, laguntzeko beste modu batzuk ere aurkitu beharko dira.
- Gizarte hezkuntza hedatzea. Biztanleriari dagoen sistema publikoaren zerbitzuak ezagutaraztea eta laguntza eskaintzea zerbitzu hauek herritarren beharretara egokitu daitezen.

- Ekintza bideratzea. Ingurunearen edota umeen, gazteen zein helduen taldeen bitartez lan eginez, moldatu ezintasun eta baztertze prozesuak gutxitzea
- Kontzientzia politikoa eta soziala sustatzea. Kale hezitzailea umeen eta gazteen bizi-baldintzak aztertu beharko ditu; egoera horiek hobetzeko neurriak hartuz eta agente politikoak herritarrek dauzkaten beharren erantzule eginez.

Beraz, kale hezkuntzaren helburu nagusia pertsonen haien bizitzako protagonistak izateko laguntza eskaintzea da; autonomia sustatzeari esker, protagonistek haien egoeran, etorkizunean eta ingurunean aktiboki jardun dezakete. Hau da, kale hezitzaileek norbanakoak bere eszenatoki propioan boterea izatea bideratzen dute. Kale hezkuntzaren arlo garrantzitsuen entzutea, eraikitzea eta formatzea da: pertsonak berak esku-hartzeari zentzua ematen dio eta egoera aldatu ahal izateko berak erritmoa, gaia eta behar diren pausuak zehaztu behar ditu (Guía Internacional, Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018).

Kale hezkuntzaren metodologia eta prozedura unibertsalen inguruan orientatzen duen marko teorikoari buruz ezin da hitz egin. Izan ere, errealitate anitzekin eta hauetan hezkuntza gerturatzea burutzeko modu ezberdinekin topo egiten dugu; efektu positibo, integratzaile eta eraikitzaileak dituzten praktika onak, alegia (Guía Internacional, Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018).

Metodo hauen dibertsitatea positiboa izan dadin, esku-hartzean burutzeko klabe eta oinarri batzuk bateratu behar dira; alde batetik, prebentzioak, arriskuen murrizketak eta bitartekaritzak lehentasuna daukate; beste aldetik, ongizateaz ere arduratu beharko da. Ongizatea ez da arazoaren eta gatazken falta, hauen onarpena eta hauek gainditzeko gaitasunak izatea baizik (Arandia eta Cabo (koord.), 2018)

Sergio Arranz-en (2012) esanetan, kale hezkuntzak momentu ezberdinen multzoak osatzen duen prozesua da. Adibidez, hasiera batean aurrez aurreko lehenengo konexioa ematen da. Momentu honen alderdi garrantzitsu bat ingurunearen ezagupena izan daiteke; kale hezitzailea kalen egon behar da testuingurua ezagutzeko, testuinguru horretan ezezaguna ez izateko eta espazioan pertsona hurbilagoa izateko (Arranz, 2012). Beraz, momentu honetan, testuinguruaren eta bertan esku hartzeko metodoen ezagutza burutzen duelako behaketa potentzia handiko tresna bihurtzen da. Ingurugiroaren behaketaren ostean, kale hezitzaileek subjektuekin lan egiten hasten dira; haiekin harremanak hasteko eskaintza egiten diete eta haiek hau onartzeko edo ukatzeko

eskubidea daukate. Harreman egokiak lortzeko, konfiantza oinarritzat hartzea ezinbestekoa da (Guía Internacional, Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018). Modu honetan, profesionalek pertsonen identitatearen, nortasunaren, kezken eta galderen ikuspuntu globala lortu ez ezik, hauekin esku hartzeko akonpainamendua eraikitzen ere joango da (Guía Internacional, Arandia-k eta Cabo-k (koord.) aipatuta, 2018).

Blancoren, Garcíaren eta Quintanaren (2010) esanetan, espazio publikoetan gertatzen diren fenomeno sozialen behaketa hasiberri, sistematiko eta jarraitu bat ezinbestekoa da. Honi ere, inguruko beste agente sozialek (bizilagunek edota merkatariak, adibidez) eman ahal duten informazioa gehitu ahal zaio. Informazioa elkarriketen, bileren, topaketen, publikazioen, informeen, estatistiken edota errealitatea islatzen duten edozein analisi elementuen bitartez lortu daiteke. Behaketa hau profesional taldeak partekatutako hausnarketaren bitartez analisi bihurtzen da.

Laburbilduz, kale hezkuntzak, gizartearen eraldatzeko asmoarekin, esku-hartze positibo eta eraldatzailea bideratzen du; ingurune sozialean eta arreta prebentiboan oinarrituz. Modu honetan, kale hezkuntzaren helburu nagusia pertsonen haien bizitzako protagonistak izateko laguntza eskaintzea da; beti ere, prebentzioan, garapenean eta esku-hartze sozialean oinarrituz.

1.2. Komunikazioa gaur egun Sare Gizartean

Kontzienteki edo inkontzienteki, gure gizarteak jasaten dituen abiadura handiko eraldaketa ikaragarriak egunero ikusten dira. Gaur egun, Informazioaren Gizartearen seme-alabak gurea esan daiteke; adibidez, gure gurusoak Hezkuntzaren seme-alabak izan ziren. Eredu hauek nahiz eta elkarrekiko harreman estua izan, haien hedapena testuinguru ezberdinen arabera izan da (Fernández, 2014).

Gabriel Mondragon-ek (2015) azaldu zuen moduan, gaur egungo komunikazio harremanak ulertzeko, XX. mendearen erdialdean hasi zen iraultza teknologikoa aztertzea ezinbestekoa da:

“Informazioaren gizartearen hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkada bitartean sortzen hasi zen. Multimedia komunikazio sistema bateko teknologia berrien eta informazio berrien integrazio dinamikoak aldaketa globalak sustatu eta eragin zituen. Ondorioz, estatuak ahuldu ziren; Internetek lurralde zein ziberespazio mailan botere estrukturak ekoizten eta errepikatzen dituzenez, estatuaren ekintza politikoen askatasuna gutxitu zen. 1950 eta 1980 bitartean emandako mikroelektronikaren, informatikaren eta

telekomunikazioen berrikuntza eta garapenari esker, informazioaren gizartea sortzeko testuingurua ere eraiki zen” (Mondragón, 2015, or. 3).

Modu honetan, Internetek sortutako botere estrokturekin batera, botere kulturalak ere sortzen ziren; botere kultural hauek gizarte baten ezagutza prozesuak eta sistema kontzeptualak zuzenki zein zeharka osatzeko gaitasunetan oinarritzen dira. Errealitate berri hau globalizazioaren prozesu osagarrien emaitza izan zen eta informazioaren teknologian zein komunikazioan mantendu zen, gizakien arteko komunikazio harremanetan aldaketak sortuz (Ibañez, 2006). Izan ere, Manuel Castellsek (2007) adierazi zuen moduan, historian zehar komunikazioa eta informazioa botere ⁷ eta kontra boterearen ⁸ iturri izan dira, sare gizartearen egoeran areagotzen direnak.

Castells-en esanetan, Internet gure bizitzen egituren parte da:

“Internet ez da etorkizuna, orainaldia baizik. Internet elkarrekin komunikatu daitezkeen ordenagailu sareek osatzen duten sare bat da. Internet guztia lortzeko bide bat da; gizarte osoa eta internet elkarri eragiten diote, nahiz eta Internet fenomeno nahiko berria izan (azken hogeita hamar urteetan zehar eraikitzen da, gutxi gora behera 1969. urtetik aurrera; 1994an *world wide web* sortu zen). Baina teknologia hau ez da bakarrik teknologia sinple bat; izan ere, komunikatzeko, elkarrekintzarako eta antolakuntza sozialerako bidea ere bada. Internet prozesu sozialak, interesak, baloreak eta instituzioak adierazten dituelako gizartea bera da. Gainera, Interneten jatorria ez duten harreman sozialen garapena bultzatzen duten azpiegitura teknologikoa eta antolakuntza bidea ere bada; hauek aldaketa historikoen ondorioz ematen dira eta Internet gabe ez ziren garatzeko gai izango (Castells, 2002, or. 1).

Sare gizartea, Castells-ek (2009) adierazi zuen moduan, Internetek sortutako informazioaren bitartez eraikitzen diren egitura sozialek eratzen dute. Beraz, zentzu horretan, Internet gure gizartearen forma antolatzailea osatzen duen komunikatzeko bidea da; industrializazioan faktorien eta korporazio handien antzera. Internet gaur egungo paradigma sozio-tekniko berri baten bihotza da, gure bizitzen, harremanak izateko moduen, lanaren eta komunikazioaren oinarri materiala dena. Internet gure errealitatea eraikitzeke birtualtasuna prozesatzen du. Modu honetan, Sare Gizartea sortzen du, bizi garen gizartea, alegia (Castells, 2009).

Castells-ek (2002) ere, komunitate birtualaren eta komunitate fisikoaren bereizketa egiten du. Interneten sortzen diren komunitate birtualak gizarteratzea, harremanak eta gizarte harremanen sarea sustatzen dutelako komunitate dira. Hauek ere jokabide

⁷ Aktore sozial batek beste aktore sozialei bere borondatea inposatzeko duen gaitasuna.

⁸ Aktore sozialek desafiatzeko eta gizartearen instituzionalizatuak dauden botere harremanak aldatzeko duten gaitasuna.

ereduak eta antolakuntza soziala garatu dituzten baloreen iturriak dira (Castells, 2002). Komunitate birtualak ere komunitate pertsonalak eta pertsonetan oinarritutako komunitateak dira; pertsonen interes indibidualetan, kidetasunean eta baloreetan oinarritutako komunitateak, alegia eta konpainia, laguntza soziala, informazioa eta pertenez sentimendua eskaintzen dute (Castells, 2001).

Laburbilduz, Sare Gizartean barneraturik gaude. Internetek eta teknologia berriek bizitza baldintzatzen dute eta horrek eragina dauka gure komunikazio harremanetan. Komunikazioa, berez, berdina da baina prozesuak baliabide berriak lortu dituela esan daiteke; hau da, sare sozialen eta interneteko informazioaren bitartez, komunikazio harremanak aldatzen joan dira.

1.3. Komunikazioa hezkuntza harremanetan

Gizakien arteko komunikazioa da harremanak izateko modu espezifiko bat, non, pertsonak bere barneko adierazpenen bitartez parte hartzen duten. Komunikatzea gizakiek daukagun esentzia komunean jartzea da. Komunikazioak behar duen bateratze horrek parte hartzea behar du (Reyes, 1997). Prozesuan parte hartu duten pertsonak proiektu parte hartzaile batean haien existentzia tartean sartu ez ezik, haien esentziaren parte bat ere eman dute (Reyes, 1997).

Hori ez ezik, Michael Canale-k (1995) komunikazioak dauzkan ezaugarriak adierazi zituen: (a) interakzio sozialen modu bat da, normaltasunez eta interakzioen bitartez barneratzen dena; (b) forman eta edukian sormena behar du; (c) hizkuntzaren erabilera egoki baten bitartez testuinguru diskurtsiboetan eta sozio kulturaletan ematen da eta adierazpenen interpretazio egoki bat lortzeko erreferentziak eskaintzen ditu; (d) muga psikologikoen, memoria murrizketen, nekearen edota oharkabetasunpean ematen da; (e) beti helburu bat dauka (harreman sozialak sendotzea, konbentzitzea edota promes egitea, besteak beste); (f) liburuetan edo material didaktikoetan erabiltzen den hizkuntza alde batera uzten du, hizkuntza hurbilagoa bilatu nahian eta (g) emaitza konkretuen bitartez komunikazioak izan duen arrakasta neurtzen da (Brönstrup-ek, Godoi-k eta Ribeiro-k aipatuta, 2007).

Horretaz gain, Vera França-k (2002) komunikazioaren azterketarako garrantzitsuak eta analizatu daitezkeen diren hainbat ezaugarri aipatzen ditu (Brönstrup-ek, Godoi-k eta Ribeiro-k aipatuta, 2007):

- Komunikazioa hartu-eman prozesu bat da: ekintza partekatua, praktika zehatza eta interakzioa. Ez da bakarrik mezuak transmititzeko prozesu bat.
- Hizketakideen presentzia. Hizketakideak ez dira bakarrik igorle edo hartzaile. Izan ere, subjektu sozialek rol batzuk barneratzen dituzte eta zentzuen produkzioaren edota interpretazioaren prozesuetan inplikatuak daude.
- Diskurtsoen identifikazioa. Forma sinbolikoek komunikazioan inplikatutako mezuak, subjektuak eta produkzioa azaldu dezakete.
- Egoeraren arabera sortutako prozesuen ulermena: praktika diskurtsiboaren eta gizartearen egoera sozio kulturalaren manifestazioak.

Antonio Pasquali-ren (1980) esanetan komunikazioa ez da bakarrik gizarte demokratikoen beste elementu bat, harremanen oinarritzko kategoria bat baizik; komunikazioa, batez ere maila antropologikoan, “bestearekin egotea” definitzen duen modu unibertsaleko bat da (Montero-k eta Navarro-k aipatuta, 2008). John Dewey-ek (1991) esan zuen moduan, gizartea komunikazioari esker existitzen da eta historian zehar talde sozialen eraikuntzan oinarritzko faktore bat izan da (Montero-k eta Navarro-k aipatuta, 2008). Izan ere, giza harreman guztiek komunikaziorako joera dute eta giza harremanetan ematen den komunikazio forma hau komunitarioa eta elkarrekikoa den heinean, demokratikoagoa izango da (Montero eta Navarro, 2008).

Mercedes Monterok eta Mariano Navarrok (2008) adierazi zuten moduan, komunikazioa historian zehar pertsonak batu eta komunitateak sortu ditu. Modu honetan, komunikazioaren bitartez zaindu eta antolatu diren errealitate sozial ezberdinekin aurkitu dira: komunikazioak integrazio soziala ahalbidetzen du taldearen eta pertsonaren identitateak eraikitzen laguntzen duelako. Gaur egun komunikazioa arma sozial moduan kontuan hartu beharrean, tresna moduan hartzen dugu; gizartearen barnean dauden pertsonen arteko gatazkak murrizteko edota aurreikusteko arma arrakastatsua izan daiteke (Fernández, 2014).

Modu honetan, komunikazioaren eragina harreman hezitzaileetan duen garrantzia azpimarratu daiteke. Harreman hezitzaileari dagokionez, interakzio, komunikazio edo eragin ezberdinen ondorioz ematen den emaitza baino gehiago da. Izan ere, benetan zerbait baliotsua eta hezitzailea izateko elementu konkretu batzuk ere behar ditu (Sánchez, Lledó eta Perandones, 2011).

Honekin batera, hezkuntza harremana hezitzailearen eta erabiltzailearen artean ematen den harremanen multzoa osatzen du eta aldi berean, heziketa helburuetara heltzeko bidea eraikitzen doa. Harreman hauek, nolakotasun afektibo, kognitibo eta emozionalak izanik, esperientzian oinarritutako garapena aurrera eramaten dute. Honi esker, hezitzailearen eta erabiltzailearen artean elkarrekiko aintzatespenezko eta ardurazko istorioa sortzen da (Sánchez, Lledó eta Perandones, 2011). Beraz, John Dewey-ek (1967) eta Victoria Camps-ek (1990) adierazten duten moduan:

“Ukaezinak diren baloreak hezkuntza harremana bereizgarri bihurtzen dute; bihotzeko jarrarekin batera hezkuntzan eman daitezkeen harreman pertsonalak ikusteko eta interpretatzeko forma ezberdinak: autonomia eta askatasuna, besteen zaintza, intimitatea, bakardadea, historikotasuna, poztasuna, zorientasuna, mina, tristura” (Sánchez-ek, Lledó-k eta Perandones-ek aipatuta, or. 404).

Laburbilduz, komunikazioa hartu-eman prozesu bat da. Horrek erlazio estua dauka harreman hezitzaileekin. Izan ere, harreman hezitzaileetan aipatzekoa da dauden nolakotasun afektibo, kognitibo eta emozionalak. Kale hezitzaileek pertsonekin lortzen dituzten harremanak finkoak eta osasuntsuak izan daitezen komunikazio egokia egotea ezinbestekoa da. Horri esker, pertsonak (bai hezitzaileek, bai helduek, baita adingabeek ere) komunikazio prozesu berdinean igeri egiteko gai izango dira eta hezitzaileek autonomian eta askatasunean oinarritutako esku-hartzeak bideratu ahal izango dituzte. Gaur egun Internetek eta sare sozialek eragin zuzena daukate harremanetan Interneten sortzen diren harremanek gizarteratzea, komunitateak eta harreman sareak sustatzen dutelako.

2. Metodologia

Atal honetan ikerketa burutzeko erabilitako metodologia azalduko da, baita ikerketaren helburuak, hipotesiak, metodologia kualitatiboa, elkarrizketa sakonak, lagina eta lanaren garapena ere.

2.1. Helburuak eta hipotesiak

Ikerketaren helburu nagusia da Sare Gizarteak kale hezkuntzaren hezkuntza harremanetan izan duen eragina aztertzea. Hori aztertzeko ikerketaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Kale hezkuntzako harreman hezitzaileen ezaugarri nagusiak identifikatzea.

- Kale hezkuntzan dauden harreman hezitzaileetan azken hamar urteetan zehar egon diren aldaketak identifikatzea.
- Sare Gizarteak kale hezkuntzako harremanetan duen eraginaren indar-guneak eta zailtasunak ezagutzea.
- Kale hezitzaileek Sare Gizartean dituzten erronkak identifikatzea.

Ikerketa ondorengo hipotesietatik abiatzen da:

- Kale hezkuntzako harreman hezitzaileak iraunkorrak eta arrakastatsuak izan daitezkeen ezaugarri konkretu batzuk ditu. Izan ere, adingabeek eta helduek hezitzaileekin dituzten harremanak konfiantzan, autonomian eta askatasunean oinarritzen dira osasuntsuak izan daitezkeen. Gainera, lehenengo kontaktua harremana mantentzeko alderdi garrantzitsua izan daiteke.
- Kale hezkuntzaren harreman hezitzaileek aldaketak jasan dituzte. Izan ere, sare sozialen hedapenak eragin zuzena izan du harremanetan; pertsonekin hitz egiteko eta kontaktatzeko sare sozialak erabiltzeko ohitura daukagu.
- Kale hezkuntzaren harreman hezitzaileetan Sare Gizarteak duen eraginak indar-guneak zein zailtasunak sortu ditu. Alde batetik, kale hezitzaileek esku-hartzeko eta behatzeko baliabide berriak dituzte.
- Kale hezitzaileek Sare Gizartean erronka berri batzuk dituzte. Izan ere, adingabeei erabilera egoki bat erakusteko formazio eta material eskasa aurki ditzakete hezitzaileek.

2.2. Metodologia kualitatiboa

Ikuspuntu zabal batetik abiatuta, metodologia kualitatiboa datu deskribatzaileak sortzen dituen ikerketa dela esan dezakegu; adibidez, pertsonen esandako zein idatzitako hitzak eta behatu daitezkeen jarrerak (Quecedo eta Castaño, 2002). Metodo kualitatiboa “mundu soziala esanahien eta sinboloen bitartez eraikitzen direla” baieztapenean oinarritzen da (Ruiz de Olabuénaga, 2003, p. 26). Beraz, metodo kualitatiboak mundu sozialaren eraikuntzen eta horiek dauzkaten esanahien ikerketa burutzen duela esan dezakegu. Ikerketa honetan, Vitoria-Gasteizeko bost kale hezitzaileei egindako elkarrizketa sakonek haien lan egiteko moduak eta harremanak ezagutzeko aukera ematen dute. Baita ere, elkarrizketa sakonei esker Sare Gizarteak kale hezkuntzaren hezkuntza harremanetan izan duen eraginaren inguruko informazioa jasotzen da. Modu

honetan, hezitzaileek esandako hitzak analizatu ahal izateko metodologia kualitatiboa erabili da.

2.3. Elkarrizketa sakonak

Elkarrizketa ikerketa batean interesekoak diren talde baten edo pertsona batzuen inguruko ezagutza lortzeko teknika da (Robles, 2011). Izan ere, elkarrizketetan elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen arteko harreman estuagoa lortzen da; pertsonak dituzten helburuak, zergatiak, jarrerak, pertzepzioak eta balorazioak modu argiago batean ulertuz eta besteen esperientziak eraikiz (Roca, 2011).

Bernardo Roblesek (2011) aipatzen duen moduan, elkarrizketa sakonak, informazioa lortzeko helburuarekin, ezezagun baten mundu pribatu eta pertsonalean barneratzeko baliabidea izan daiteke. Mota honetako elkarrizketetan ez dago galdera eta erantzunen partekatze formalik; gai konkretu batzuen inguruko gidoia prestatzen da eta informatzaileekin gai hauen inguruan hitz egiten da (Robles, 2011).

Modu honetan, elkarrizketatuei egindako elkarrizketaren bitartez haiek kale hezkuntzarekiko eta Sare Gizartearekiko bizi dituzten egoerak eta esperientziak ulertu nahi izan dira; haien bizitzekiko, esperientzietatikiko edota egoera desberdinekiko dituzten ikuspuntu ezberdinak aztertzeko.

Elkarrizketak, egituratuak dira, elkarrizketak burutu baino lehen prestatutako gidoi batetan oinarritzen direnak (Eranskin 1). Modu honetan, elkarrizketatuekin elkarrizketa bat burutzeko ikerketaren helburu nagusiaren eta zehatzen bitartez, galdera batzuk prestatu ziren. Nahiz eta galdera hauek mahai gainean izan, elkarrizketatuek gaiaren inguruan edozein alderdiri buruz hitz egiteko askatasun osoa zeukaten eta galderak malguak ziren.

2.4. Lagina

Lan hau bideratzeko, guztira bost elkarrizketa burutu ditut. Lehenengoa, hezitzaile bakarrarekin burutzeko aukera izan nuen eta beste biak, aldiz, auzoan bikoteka lan egiten duten bi hezitzaileekin batera burutzeko aukera izan nuen.

Elkarrizketatu guztiak kale hezitzaile moduan lan egiten dute Vitoria-Gasteizeko auzo ezberdinetan eta “Kale Heziketako Programa” barnean. Programa honek, Vitoria-Gasteizeko auzoetako ingurune irekian esku-hartze sozio-hezitzailea burutzen du eta faktore sozial, familiarak, pertsonalak direla eta arrisku egoeran egon daitezkeen 8-18

urte bitarteko adingabeei zuzendurik dago. Programaren helburu nagusia adingabeen garapen prozesuetan, ingurune irekian burutzen diren esku-hartzeen bitartez, laguntza eskaintzea eta prozesuaren potentzialtasunak azpimarratzea (Arandia eta Cabo (koord.), 2018).

Ondorengo taulan, elkarrizketatu bakoitzaren sexua, lanbidea eta kale hezkuntzan izandako esperientzia denbora islatzen da.

Kodigoa	Sexua	Lanbidea	Esperientzia
KH1E	Emakumea	Lakua-Sansomendi Gasteizeko auzoko kale hezitzailea	6 urtez
KH2E	Emakumea	Zaramaga-Aranbizkarra Gasteizeko auzoetako kale hezitzailea	7 hilabetez
KH3G	Gizona	Zaramaga-Aranbizkarra Gasteizeko auzoetako kale hezitzailea	10 urtez
KH4E	Emakumea	Judimendi-Arana Gasteizeko auzoetako kale hezitzailea	5 urtez
KH5G	Gizona	Judimendi-Arana Gasteizeko auzoetako kale hezitzailea	15 urtez

2.5. Lanaren garapena

Marko teorikoaren azterketa bibliografikoa egin ostean, metodologia aurrera eramateko kale hezkuntzaren harreman hezitzaileak aztertzeo interesaren ondorioz, gertuen neuzkan kale hezitzaileak elkarrizketatzea erabaki nuen. Elkarrizketatuekin lehenengo kontaktua lortu ahal izateko, nire sare-harremanaz baliatu nintzen. Modu honetan, kale hezitzaile batekin kontaktatzean, beste hezitzaile batzuekin kontaktatzeko erraztasunak eskaini zizkidaten. Azpimarratzekoa da, kale hezitzaileekin behin lehenengo kontaktua izanda (telefonoaren sare sozial baten bitartez izan zena) nirekin elkartzeko eta elkarrizketak aurrera eramateko guztiak prest zeudela.

Elkarrizketak otsaila eta apirila bitartean burutu nituen. Guztiak kale hezitzaile bakoitzak duen bulegoan egin nituen; Lakuako, Iparraldeko eta Judimendiko gizarte etxeetako bulegoetan, zehazki. Elkarrizketek berrogei minutuko eta ordu bateko tartean iraun zuten.

Hiru elkarrizketetako parte hartzaileei, hasiera batean baimena eskatu ez ezik, baimen agiria sinatzeko aukera eskaini zitzaion (Eranskin 2). Izan ere, elkarrizketetan lortutako datuak anonimoak izan ez ezik, lan honetarako zirela baieztatu nahi nuen eta haien baimena idatzirik izatea beharrezkoa da. Gainera, elkarrizketa grabatzeko baimena ere

eskatu nien. Guztiek, arlo guztietan ados zeuden eta haien baimena askatasun osoarekin eman zidaten.

Modu honetan, elkarrizketak grabatuta izanda, hauek transkribatu⁹ nituen modu literal batean. Honi esker, elkarrizketako erakarpen guztiak berrikusteko aukera neukan eta hauek kategoria ezberdinetan sailkatzeko erraztasun gehiago neukan. Modu honetan, emaitzak modu kualitatibo batean sailkatzen dira (Eranskin 3).

3. Emaitzak

Ondoren, hezitzaile guztiek lehen aipatutako elkarrizketetan plazaratutako emaitzak aurkitzen dira. Ikerketa kategoriak ardatza izanik, emaitzak ondorengo sailkapenean daude; harreman hezitzailearen ezaugarri nagusiak, harreman hezitzaileak jasandako aldaketak, Sare Gizarteak harreman hezitzailean eragindako indar-gunean eta ahuleziak eta kale hezitzaileen erronkak Sare Gizartean.

3.1. Harreman hezitzailearen ezaugarri nagusiak

Kale hezitzaileen hitzetan, kale hezitzaileek pertsonak zein kaleak ezarritako baldintzei moldatu ez ezik, pertsonekin dituzten harremanak ere eraiki behar dituzte eta Vitoria-Gasteizeko hainbat auzoetako kaleetan eta gizarte etxeetan figura esanguratsuak bihurtzen dira. Kale hezitzaile batek aipatu zuen moduan:

Lo bueno que tiene es que ningún día es igual al otro que eso es bueno pero a su vez tienes que tener muchas posibilidades, muchas alternativas y muchas tablas (KH5G)

Horretarako, kale hezitzaileek enpatian eta konfiantzan oinarritutako harreman hezitzaile eta horizontala ezinbestekoa dela aipatzen dute eta kale hezitzaileek harremanak duen garrantzia ere azpimarratzen dute:

Azkenean guk egiten dugu lan erlazioarekin, con el vínculo. Sin vínculo no hay trabajo, no hay intervención posible. Orduan guretzako hori da como la piedra angular (KH1E)

Horrekin batera, kale hezitzaileen arabera, kale hezitzaileen eta auzoko gazte eta umeen artean harreman hezitzaile bat sortzen joateko ezinbestekoa da lehenengo kontaktua aurrera eramatea. Lehenengo kontaktu hau, normalean, adingabea eta hezitzailea aurrez aurre topo egiten dutenean ematen dela esan dezakegu. Lehenengo kontaktu hau modu

⁹ Elkarrizketak grabatuak eta dokumentu batetan transkribatuak daude. Tutoreak eta nik erabaki genuen hauek lanean ez sartzea etika dela eta; hizlari batek beraren datuak ez agertzeko eskatu zigun. Egoera honen aurrean, elkarrizketak norbaitek eskatzekotan erraztuko dira.

egoki eta arrakastatsu batean bideratu ahal izateko, kale hezitzailearen naturaltasuna eta hurbiltasuna oso garrantzitsuak direla azpimarratzen du hezitzaile batek:

Oso naturalak izaten gara. Orokorrean saiatzen gara izatea hasiera batean behintzat sartzeko orduan, ez gara lagunak baina oso hurbilak izan behar gara. Ez daukagu mahai bat erdian eta hori ere garrantzitsua da; gure lana dela esku-hartze presentziala eta oso intimoa modu berean. Orduan izan behar da oso hurbila, naturala (KH1E)

Modu honetan, hezitzaileen arabera, hezitzaileak adingabea proiektura erakartzeko teknika arrakastatsuena adingabea haren gustuko ekintzetara gonbidatzea izaten da. Izan ere, kale hezitzaileek aipatzen duten moduan, adingabeak nerabezaroan daudenean, krisi pertsonalak bizitzeko joerak dituzte; zeuzkaten erreferenteak zalantzan jartzen dituzte, haien arazoak ez direla entzuten sentitzen dute, haien sentimenduak plazarazteko zailtasunak izan ditzakete eta orokorrean, haien pentsamenduak ulertzen eta entzuten dituen pertsona bat behar dute alboan:

(...) necesitan que les escuchen. Cualquier joven que hay, se sienten incomprendidos y nadie les escucha ni les hace caso. Es el inconformismo. Necesitan un momento, un sitio y una persona que les escuche (KH5G)

Horrek, hezitzaileek aipatu zuten moduan, hezitzailearen eta adingabearen arteko harreman hezitzailea indartzeko aukera ematen du. Izan ere, hezitzaile batek aipatu zuen moduan, kale hezitzaileak gazte hauentzako erreferente bihurtzen dira; gurasoek eta lagunak eskaintzen ez dioten ikuspuntu eta laguntza ematen dizkiete. Hezitzaileen hitzetan, beraz, denborarekin eraikitzen dute; kale hezitzaileak adingabeentzako hor daude beti eta horrek konfiantzazko eta segurtasunezko harremanak sortzen ditu euren artean:

Yo creo que es como magia. ¿Por qué nosotros nos convertimos en referente? Porque al final vas por el centro cívico y saludas. Y hay gente que ese saludo le ha arreglado la tarde; y se va creando algo (KH4E)

Kale hezitzaileen hitzetan, adingabeek kale hezitzaileekin duten harreman hezitzailea luzera mantentzen eta arrakastatsu bihurtzen da, normalean, haien arazoak, berri onak eta berri txarrak entzuten eta ulertzen dituelako. Horretarako, kale hezitzaileen arabera, ezinbestekoa da pertsona ezagutzea jakin ahal izateko nola sentitzen den edo momentu konkretu batzuetan nola dagoen eta zer behar-izan dituen. Azkenean, pertsonak behar duten eta ez duten arreta kale hezitzaileek eskaintzen diote:

Es muy difícil de explicar cómo se crea; es estar, preocuparte, sabemos los gustos, lo que han cambiado, qué les pasa. Conocerlos porque estás todos los días (KH4E)

Kale hezitzaileek kalean eta gizarte etxeetan antolatzen dituzten ekintzak, kale hezitzaileek apatu zuten moduan, gazteen ustez, haien gustuetara moldatzen diren ekintzak bat besterik ez direla pentsatzen dute. Baina kale hezitzaileek ekintza hauen eta harreman hezitzailearen bitartez, bestelako alderdi batzuk ere lantzen saiatzen dira; higiena, berdinen arteko harremanak, errespetua, formazioa, berdintasuna eta laguntasuna, besteak beste. Kale hezitzaile batek aipatu zuen moduan:

Arauk ustez orokorrean jakin beharko zutenak ez dakizkitez, orduan gogoratu behar ditugu, astero. Eta azkenean barneratu behar dituzte. Hitz egiteko moduak eta errespetua. Errespetuz hitz egin, berdintasuna. Arauk asko lantzen ditugu (KH1E)

Kale hezitzaileen arabera, ekintza hauetan parte hartzen duten adingabeak, normalean, denbora luze batez bertan geratzen dira parte hartzen eta, ondorioz, haiek inguruan dituzten lagunak ere erakartzen dituzte eta haiek ere proiektuan parte hartzen dute.

Hau ez ezik, kale hezitzaileek ingurunean dituzten pertsonen beharren identifikazioari ere garrantzia ematea garrantzitsua izan daiteke. Kale hezitzaile batek azaldu zuen moduan:

Por mi experiencia hay que detectar las necesidades de la persona y luego intentar entrar (...) Risas, bromas. Sobre todo como lo gestiono yo; indagando en sus gustos y aficiones (KH3G)

Izan ere, kale hezitzaile honen arabera, honi esker, harreman hezitzaile hori behar batzuk asetzeko ere balio izango du; formazio, afektibitate edo harreman sozialen inguruko beharrak, adibidez.

3.2. Harreman hezitzaileak jasandako aldaketak

Bi kale hezitzaileek adierazi zuten moduan, duela hamar urte arrisku adierazlea adingabeak kalean denbora gehiegi egotea zen. Aldiz, gaur egun, adingabeak etxean denbora gehiegi egoteak arrisku adierazle bat ere bada. Izan ere, ume edo gazte bat etxean, bakarrik pantaila batzuetara begira egotea kalean bakarrik edo egokiak ez diren pertsonekin egotea bezain arriskutsua izan daiteke. Gainera, kalean denbora luzez dagoen adingabe bat kale hezkuntzaren proiektuan sartzeko erraztasun gehiago eman ditzake; kale hezitzaileek berarekin aurrez aurre hitz egin eta motibatu dezakete ezagutzeko eta hainbat ekintzetan parte hartzeko. Aldiz, etxean pantaila baten aurrean orduak pasatzen dituen ume batekin esku-hartzeko zailtasun gehiago sortzen dira. Kale hezitzaile baten hitzetan:

Porque un niño que está en la calle todo el día es mucho más fácil traerlo a que haga cosas y motivarlo a que haga. Igual los estudios no, pero invitarlo a que en ese tiempo haga cosas más productivas que sacar a un niño de casa que está delante de una pantalla durante 5 horas que tampoco hace deberes, que tampoco hace nada más (KH4E)

Izan ere, kale hezitzaile hauen arabera, adingabearentzako latzagoa suerta daiteke bideojokoetara jolasten uztea, kalera irtetea eta hezitzaileekin zein berdinen talde baten aurrean aurpegia ematea.

Hay más ocio en tu casa de manera individual y de manera totalmente pasiva sin interacción detrás de una pantalla que luego no te deja interactuar en el día a día con las personas (KH5G).

Hala ere, hezitzaile baten hitzetan, harreman hezitzailea, berez, ez da hainbeste aldatu:

Nik esango nuke ezetz. Gure artean aurrez aurrekoa denean ez da horrenbeste aldatu baina bai erabiltzen ditugula beste baliabide batzuk. Hor sartuko litzakete sare sozialak. Orain ere sare sozialak erabiltzen ditugu eta bueno, beste pedagogia batzuk ere (KH1E)

Modu honetan, nahiz eta aurrez aurreko harreman hezitzailean aldaketa gehiegirik ez nabaritu, hauen arteko kontaktua mantentzeko baliabide berriak erabiltzen dituzte; sare sozialak. Izan ere, kale hezitzaile batek azaldu zuen moduan, haientzako sare sozialak kale hezkuntza aurrera eramateko beste baliabide batzuk dira:

Guretzako sare sozialak beste baliabide bat dira. Ez dira lehentasunezko baliabide bat. Erabiltzen dugu Whatsapp eta Instagram egunero, egunero. Baina ere egunero eskolara joaten gara. Batek ez du bestea kentzen, konplementarioak dira. Azkenean guztiek ez dauzkate datuak edo Wifi etxean eta hori kontuan hartu behar dugu. Oraindik deiekin aritzen gara. Instagram eta Facebook ere asko erabiltzen ditugu gauzak ezagutarazteko. Zer nolako gauzak egiten ditugu auzora begira edo hirira begira, modu bat da ere gure gazteak ahalduntzeko ere. Eurei ere esaten diegu haiek ere idazteko ba nola egin dugun hau, tailerra irteera edo bestelakoak. Batzuek ikusten dute guk jarritakoa eta los like eta komentarioak. Hori ere eurei egiten diete como identidad de grupo eta somos algo, somos alguien y eso no me lo vais a quitar. Agian etxean beste identitate bat izango dute. Baina gurekin daudenean badira eta izango dira. Konplementarioa da. Agian hori lehen aldizkarien bitartez izan genezakeen, eskolako aldizkariak edo gizarte etxeetakoak, eta orain eskuragarriagoa da (KH1E)

Orduan, hezitzaile guztiek talde hezitzaile moduan sare sozialak erabiltzen dituzte adingabeekin kontaktuan egoteko, proiektu eta ekintzak zabaltzeko, haien ekintzak ikustarazteko, etab. Hau da, sare sozialak ez du lan presentziala eta pertsonala ezabatzen; sare sozialak kale hezkuntzan osagarriak dira.

3.3. Sare Gizarteak harreman hezitzailean eragindako indar-guneak eta ahuleziak

Kale hezitzaileen hitzetan, haiek sare sozialak eta Internet egunero erabiltzen dituzte baina muga batzuk ezarriz; ekintza batzuetan telefonoa erabiltzeko edota zerbaiti edo norbaiti argazki bat ateratzeko baimena eskatzea, esate baterako:

A nosotros nos aporta mucho porque también la usamos con límite; tú puedes venir a la mediación de cocina pero no puedes estar con el móvil. Si quieres sacar una foto de la receta porque la quieres colgar en alguna red social vienes y preguntas si puedes sacar la foto. Sacas una foto de la receta pero si quieres que salgamos todos pregunta de uno a uno si quieren sacarse la foto y luego si quieren que la subas a algún lado (KH5G)

Honi esker ere, kale hezitzaileek haiekin sare sozialen inguruko mugak lantzeko aukera dute. Izan ere, kale hezitzaileek azaldu zuten moduan, duela hamar urte ez zituzten sare sozialen inguruko iskanbilarik izan baina gaur egun arazoak izan dituzte. Hauek landu ahal izateko, adibidez, kale hezitzaileek ekintza bakoitzean gurasoek baimen agiri batzuk sinatu behar dituzte eta hauen artean, adingabeei argazkiak ateratzeko baimen agiria sinatzeko aukera zutela adierazi zuten. Kale hezitzaile baten arabera, sare sozialen inguruko alderdi hauek lantzeko beste modu interesgarri bat honako hau izan daiteke:

¿Esta excursión cómo la vamos a hacer? Nos planteamos hacerla sin nuevas tecnologías y hemos tenido casos que las hemos hecho así y que traen los teléfonos; yo llevo una mochila y todos los metemos allí apagados. Si pasa cualquier cosa vuestros padres tienen nuestros teléfonos. Al terminar les devolvemos el móvil. Si quieren sacarse fotos, como nosotros tenemos el nuestro, utilizan éste con permiso. Porque si no, al final, cada uno teniendo el suyo no le preguntan al de al lado qué foto ha sacado. Si todos tenemos el mismo teléfono nos ponemos de acuerdo y nos enseñamos qué hemos sacado. Fomentas la relación, el respeto a los demás, tomar decisiones comunes, el trabajo en equipo, el esperar y la paciencia. Y esto se aplica a todo que se pueda trabajar ya que es una parte del día a día, es consensuado y lo hemos decidido todos (KH4E).

Modu honetan, kale hezitzaileen arabera, sare sozialen kontua kale hezitzaileen esku-hartzeak markatzen dituzte askotan; batzuekin sare sozialen bitartez kontaktatzen dute edo haiekin kontaktua mantentzeko baliabide moduan erabiltzen dute. Izan ere, sare sozialak erabiltzen dituzten gazteek askotan haien sentimenduak eta ekintzak hauen bitartez plazaratzen dituztelako, kale hezitzaile batek aipatzen duen moduan:

Muchas veces también te enteras de estados de ánimo; en una semana ha colgado siete fotografías solo, mirando al limbo con frases raras. Y piensas que igual no está en una buena época; entonces le escribes para ver qué le pasa y le invitas a que venga a hablar contigo (KH2E)

Honi esker, kale hezitzaileek egoera hauen berri izateko aukera dute. Izan ere, kale hezitzaileen hitzetan, nahiz eta hezitzaileek haiekin eguneroko kontaktu bat izan, sare sozialetan dagoen informazioa eguneroko kontaktu horrentzako osagarria bihurtu daiteke. Hau ere, alderantziz gertatzen da kale hezitzaile baten hitzetan:

Antes te buscaban y te encontraban. Ahora con el móvil saben que estás ahí. Entonces igual te encuentras a las tres de la mañana hablando con algún chaval. La parte buena es que saben que estás ahí si pasa algo muy fuerte, lo que sea. Estoy en el teléfono y saber que estás en el teléfono les da una tranquilidad muy importante, porque igual son cosas que no se las cuentas a un amigo o amiga. Entonces tengo esa tranquilidad que antes no tenía (KH4E).

Hala ere, horrek ere alde negatiboak izan dezakeela adierazten du kale hezitzaile batek:

Si quieres puedes estar en contacto en todo momento con ellos. Tiene su parte buena y su parte mala; que puedes estar en tu tiempo de ocio o en tus vacaciones y ellos también te tienen ahí (KH3G)

Ondorioz, kale hezitzaileek plazaratu zuten moduan, mugak jarri behar dituzte haien bizitza pertsonalaren eta profesionalaren artean sare sozialen kontuekin.

3.4. Kale hezitzaileen erronkak Sare Gizartean

Elkarrizketatutako kale hezitzaile batek aipatu zuen moduan:

Hoy en día, nosotros las denominamos “Las Nuevas Calles” porque es una parte de las nuevas calles. Luego hay que pensar que sobre todo en los barrios del centro, muchas chicas/os se han ido a vivir a nuevos barrios. Entonces una nueva manera de invitarlos y seguir con el contacto es a través de las redes sociales. Entonces, a nosotros nos marca el día a día (KH3G)

Kale hezitzaile honen hitzetan, gaur egun, sare sozialei erreferentzia egiteko erabiltzen duten kontzeptua da. Izan ere, kale hezitzaile hauek sare sozialen bitartez mundu fisiko soziala eta mundu digitala bat egiteko gai dira. Bi mundu hauetan batera lan egitean eta sare sozialek eskaintzen duten erabilgarritasuna aprobetxatuz kale hezitzailearen eta adingabearen arteko harreman hezitzailea indartu daiteke kale hezitzaileen ustetan. Azken batez, “Kale Berriek” kale hezitzaileei “hor” egoteko aukera errazten diete.

Izan ere, kale hezitzaile baten hitzetan, kale hezitzaileak gizarteak jasaten dituen aldaketetara moldatu behar da eta gaur egun, mahai gainean daukagun gai nagusietako bat sare sozialak dira. Modu honetan, kale hezitzaileen hitzetan, kale hezitzaileak gazteen egunerokotasun honetara moldatzeko beharra izango du beti. Izan ere, egunerokotasun horrek kale hezitzailearen lana baldintzatuko du; esku-hartze asko sare

sozialen gaia nagusizat izango dute. Baina sare sozialen garapena abiadura oso azkarrean doa eta horren inguruan dagoen beldur nagusia harreman pertsonalen galera da. Kale hezitzaile baten hitzetan:

A mí me da un poco de vértigo. Personalmente no se cuanto ni cómo va a evolucionar esto (...) No sabemos si el contacto interpersonal bajará, si las calles serán menos relevantes. A mí me da un poco de vértigo. No sabes si adaptarte para que ese precipicio sea menor, pero a mí se me escapa un poco (KH3G)

Beste hezitzaile batek, aldiz, beldur horren aurka egitea beharrezkoa dela adierazten du:

Sare sozialak oso egokiak dira eta hemen daude, haiekin bizi gara. Orduan jakin behar dugu hauek erabiltzen. Beraz, ez diegu beldurra izan behar eta hauetara moldaturik erabili behar ditugu. Guk erabiltzen ditugu eta jarraituko ditugu erabiltzen, erabilera ona bultzatuz bai gure artean baita adingabeen artean sustatuz ere (KH1E)

Hala ere, kale hezkuntzako profesionalek sare sozialekiko erabilera egokia sustatzeko beharra ikusten dute. Ondorioz, gai honen inguruan eguneratuak egoteko zailtasunak egon daitezke prebentzioan aritzeko eta gaia lantzeko baliabide hezitzaileak nahiko eskasak dira gaur egun. Kale hezitzaile baten hitzetan:

Quieres ponerte al día de todo. ¿Nos hacemos como educadores de redes sociales? Guay porque ves todo lo que cuelgan ellos. ¿Pero tú qué uso le das, de cotilla? Como educador ¿qué uso le das? En Instagram vale, cuelgo las recetas que hacemos en las mediaciones pero en realidad ¿qué es lo que más me aporta? Ver lo que cuelgan ellos y lo que comentan. Ver, ver, ver. Estar presente en las redes sociales para tener información más que para dar yo información. Luego es como: nos hacemos perfiles. Vale, pero luego no los usamos ni sabemos usarlo. Nos hemos hecho mil historias que igual como educadores no nos valen, no funcionan. Hay que saber usarlas, porque en la vida personal y de manera educativa es complicado; hay que invertir mucho tiempo, hay que general mucho material crítico y atractivo bien estudiado que es muy difícil (KH4E)

Dena den, beste kale hezitzaile batek adingabeei sare sozialen ikuspuntu kritikoa eskaintzea beharrezkoa dela uste du:

Eskaintzea dagoen errealitatea. Ematea euren baliabide nahiko egoera horietara ez heltzeko; horren inguruan hitz egingo dugu eta baliabideak eskainiko dizugu baina ez dizugu ezetz esango. Como el no a las drogas. Erabileran dago kontua. Gure lana da hori, erabilera egoki bat egiteko sensibilizatu behar dugu. Haiek ere ulertu behar dute ez daudela sare sozialak bakarrik; baina kalea hor jarraitzen du, zure lagunak fisikoki, esku lanak. Ez gaudela egon behar egunero eta orduro telefonoarekin (KH1E)

Laburbilduz, kale hezitzaileek Sare Sozialera moldatzea beharrezkoa dela uste dute. Izan ere, kale hezitzailearen alderdi nagusietako bat dinamikoa izatea da eta hau

ezinbestekoa da egunerokotasunera moldatzeko, kale hezitzaile batek adierazi zuen moduan:

Kale hezitzaileak moldatu behar gara egunerokotasunari. Eta egunerokotasunean baldin badago sare sozialak ba ikasi beharko dugu ez badakigu. Azkenean moldatu behar gara gure gazteei. Ez dira eurak moldatu behar guri. Guk moldatu behar gara eurei. Eta guk moldatu behar gara euren egunerokotasunera eta euren bizimodura (KH1E)

Gainera, kale hezkuntza proiektuan parte hartzen duten gazte gehienak sare sozialetan guztiz barneraturik daude kale hezitzaileek esan zuten moduan eta ondorioz, kale hezitzaileak gazteei moldatu behar dira.

4. Ondorioak

Hasieran aipatu den moduan, “Kale Berrien” bitartez kale hezitzaileek mundu fisiko soziala eta mundu digitala bat egiteko gai dira. Bi mundu hauek bat egitean, kale hezitzailearen eta adingabearen arteko harreman hezitzailea eraldatzen da.

Izan ere, Sare Gizartearen ondorioz harreman hezitzaileek eta esku-hartzeek aldaketak jasan dituztela baieztatu da. Kontaktua aurrez aurre ematen denean harremanak berdinak dira beti; enpatian, errespetuan, autonomian eta askatasunean oinarritutako harremanak, alegia. Baina sare sozialen agerpenari esker, kale hezitzaileek harremanak mundu digitalera ere eramateko aukera dute. Ondorioz, hezitzaileen eta adingabeen harremanak estutzen eta indartzen dira, sare sozialen kale hezitzaileei beti “hor” egoteko aukera eskaintzen dietelako. Beraz, sare sozialak kale hezkuntzaren arloan baliabide erabilgarriak dira eta harreman hezitzaileen osagarri bihurtu dira.

Kale hezkuntzako harreman hezitzaileak iraunkorrak eta arrakastatsuan izan daitezen ezaugarri konkretu batzuk behar ditu. Hau gertatzen da, adingabeen arazoak, berri onak eta berri txarrak kale hezitzaileek entzuten eta ulertzen dituztelako. Nolakotasun afektibo, kognitibo eta emozionalak lortu ahal izateko, konfiantza eta enpatia ez ezik, ezinbestekoa da pertsona ezagutzea jakin ahal izateko nola sentitzen den edo momentu konkretu batzuetan nola dagoen eta zer beharizan dituen. Behin behar izan hauek kale hezitzaileek identifikatzen dituztenean, esku-hartzeak bideratzeko aukerak izango dituzte.

Bigarren hipotesian aipatutakoaren aldera, kale hezkuntzaren harreman hezitzaileek aldaketak jasan dituzte adingabeen arrisku faktoreak ere aldatu direlako. Izan ere, lehen

arrisku faktore bat adingabe batek kalean denbora gehiegi egotea bazen, gaur egun, adingabe batek etxean denbora gehiegi egotea ere bada. Gainera, kale hezitzaileek kalean dagoen adingabe batekin esku-hartzeko erraztasun gehiago izango ditu; aurrez aurreko kontaktuaren bitartez kale hezitzaileek antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzera gonbidatzea errazagoa izango da. Aldiz, etxean geratzen den adingabe batekin aurrez aurreko kontaktua egotea zailagoa da eta egoera hauetan, lehenengo kontaktua sare sozialen bitartez eman daiteke.

Kale hezkuntzaren harreman hezitzaileek aldaketak jasan dituzte. Izan ere, sare sozialen hedapenak eragin zuzena izan du harremanetan; pertsonekin hitz egiteko eta kontaktatzeko sare sozialak erabiltzeko ohitura daukagu.

Modu honetan, laugarren hipotesian esandakoari jarraiki, kale hezitzaileek Sare Gizartean erronka berriak dituzte; sare sozialen erabilpen egokia sustatzea, sare sozialen inguruko arrisku egoerak prebenitzea eta sare sozialen gaineko beldurra ezabatzea. Erronka hauek hezitzaileek aurrean daude haiek gizarteak jasaten dituen aldaketetara moldatu behar direlako eta Internet, gaur egun, orainaldia da. Kale hezitzaileak gazteen egunerokotasunera moldatu behar dira eta orain, gazteen egunerokotasuna sare sozialek markatzen dute eta harremanak eta esku-hartzean baldintzatzen dituzte. Hau ez ezik, sare sozialen garapena azkarregi doa eta horretara moldatzea zaila suertatzen da.

Alde batetik, horrek beldurra sortzen du gizarte hezkuntzako profesional batzuetan. Izan ere, haien beldur nagusietako bat harreman pertsonalen galera da eta sare sozialen hedapenak hori baldintzatu dezake. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte hezitzaileen lana; adingabeekin erabilera egokia sustatzea, arrisku egoerak prebenitzea eta errealitatea den modukoa azaltzea ezinbestekoa da. Beste aldetik, erabilera egokia sustatzeko eta arrisku egoerak prebenitzeko formazio eta material falta dago. Ondorioz, gai honen inguruan egiten den esku-hartzea ikuspuntu edo esperientzia pertsonaletik abiatzen da eta ez, esperientzia edo ikuspuntu profesionaletik. Modu honetan, sare sozialen inguruko esku-hartze egokiak egiteko, gizarte hezitzaileak (bai kale hezkuntzaren arloan, baita edozein arlotan ere) formazio eta material erabilgarri gehiago eskura izatea beharrezkoa da.

Amaitzeko, lan honek izan duen zailtasun nagusienetariko bat emaitzak plasmatzeko izan da. Izan ere, elkarrizketa sakonek ikerlariari eskaintzen dioten informazio guztia hizlariak azaldu zuten moduan lan batean azaltzea ez da izan erraza; nahiz eta kale

hezitzaile guztiek gai honen inguruan ikuspuntu antzekoa izan, bakoitzak bere bizipenak eta iritziak azaltzeko modu ezberdinak zituzten eta bakoitzak informazio ezberdina ere eskaintzen zuen. Ondorioz, guztien ahotsak haiek azaldu zuten moduan ikerlanean azaltzeko zailtasunak egon dira. Hala ere, azpimarratzekoa da elkarrizketatu guztiek lan honekiko izandako harrera ona eta interesa. Gaiaren aldetik, teorikoki kale hezkuntzaren eta Sare Gizartearen arteko eraginari buruzko informazio gutxi dagoela aipagarria da. Modu honetan, etorkizun baterako, kale hezkuntzaren eta sare sozialen arteko eraginak aztertzeko ikerketak bultzatzea interesgarria izango litzateke. Izan ere, gizakien arteko harremanak eta kalean burutzen den bizitza soziala aldaketa prozesu batean dago; aldaketa hauen berri izateak gizarte hezitzaileontzat informazio baliagarria izango litzateke.

Bibliografia

- Arandia, M. eta Cabo, A. (koord.). (2018). *El Programa Municipal de Educación de calle (PEC) de Vitoria – Gasteiz: historia de una trayectoria y proyección al futuro*. Vitoria-Gasteiz, España: Vitoria-Gasteizko Udaletxea.
- Arranz, S. (2012). El educador de Calle. Científico y poeta. *Revista de Educación Social*, 14, 2017-10-19ean hartuta, hemendik: http://www.eduso.net/res/pdf/14/educalle_res_%2014.pdf
- Blanco, L., García J. eta Quintanar, M. (2010). Educación de calle. Una experiencia de socialización en medio abierto. *Educación y Futuro*, 22, 129-148, 2017-10-22ean hartuta, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3216450>
- Brönstrup, C., Godoi, E., eta Ribeiro, A. (2007). Comunicación, lenguaje y comunicación organizacional. *Signo y Pensamiento*, 51, 26-37, 2017-11-10: <http://revistas.javeriana.edu.co/index.php/signoypensamiento/article/viewFile/4593/3562>
- Castells, M. (2001). *La Galaxia Internet*. Barcelona, España: Areté
- Castells, M. (2002). Internet y La Sociedad Red. *Lección inaugural del programa de doctorado sobre la sociedad de la información y el conocimiento*. Barcelona, España: UOC, 2018-05-29an hartuta, hemendik: <http://www2.infotelecom.es/~ecampins/Materials/Batxiller/Xarxa%20global/Societat%20global/Lecci%F3n%20inaugural%20del%20programa%20de%20doctorado%20sobre%20la%20sociedad%20de%20la%20informaci%F3n%20y%20el%20conocimiento.htm>
- Castells, M. (2009): *Comunicación y poder*. Madrid, España: Alianza Editorial

- Comas, D., Pujadas, J. eta Roca, J. (2010). *Etnografía*. Barcelona, España: Editorial UOC
- Dynamo Internacional (2014). *Historias de calle: Testimonios de trabajadores sociales de calle del mundo*. Bruselas, Bélgica: Dynamo Internacional, 2017-10-30ean hartuta, hemendik: <http://www.travailderue.org/wp-content/uploads/2014/05/Historias-de-calle-2014.pdf>
- Fernández, B. (2014). Enredados en la sociedad red. *Comunicación: estudios venezolanos de comunicación*, 166, 48-53, 2017-11-15ean hartuta, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6030291>
- La Red Internacional de Trabajadores Sociales de Calle y Dynamo Internacional (2008). *Guía Internacional sobre la educación de calle en el mundo*. Bruselas, Bélgica: Arteder, 2017-11-05ean hartuta, hemendik: <http://www.travailderue.org/wp-content/uploads/2012/08/guia-internacional-ES-2008.pdf>
- Mondragón, G. (2015). La importancia de Internet como fuente de poder de la sociedad. *Pensamiento al margen*, 3, 2017-11-13an hartuta, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5721959>
- Montero, M., eta Navarro, M. (2008). Comunicación y cambio social: algunos ejemplos históricos. *Revista Comunicación y Hombre*, 4, 169-177, 2017-11-10ean hartuta, hemendik: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=129412637012>
- Quecedo, R., eta Castaño, C. (2002). Introducción a la metodología de investigación cualitativa. *Revista de Psicodidáctica*, 14, 5-40, 2018-01-13an hartuta, hemendik: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=17501402>
- Raad, A. (2004). Comunidad Emocional, Comunidad Virtual: Estudio sobre las relaciones mediadas por Internet. *Revista Mad*, 10, 43-94, 2017-11-11an hartuta, hemendik: <http://www.facso.uchile.cl/publicaciones/mad/10/paper06.pdf>
- Reyes, M. (1997). La comunicación como espacio y el espacio para la comunicación. *Comunicar*, 8, 63-72, 2017-11-06an hartuta, hemendik: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=15800811>
- Robles, B. (2011). La entrevista en profundidad: una técnica útil dentro del campo antropofísico. *Cuicuilco*, 52, 39-49, 2017-11-03ean hartuta, hemendik: <http://www.scielo.org.mx/pdf/cuicui/v18n52/v18n52a4.pdf>
- Ruiz de Olabuénaga, J. (2003). *Metodología de la investigación cualitativa*. Bilbao, España: Universidad de Deusto.

ERANSKINAK

Eranskin 1

Elkarrizketetarako gidoia

Kale hezitzailearen profil pertsonala:

- Zein da zure izena?
- Zeintzuk dira zure ikasketak?
- Zein da zure lana?
- Zerk motibatzen zaitu lana burutzera?

Kale hezitzailearen profil profesionala:

- Zer gaitasun sozialak izan behar ditu kale hezitzaile batek?
- Nola has daiteke harreman hezitzaile bat?
- Zein komunikazio baliabide erabilgarriak dira harreman hezitzaile batean?
- Zeintzuk dira harreman hezitzailearen ezaugarri nagusiak?
- Nola mantendu daiteke harreman hezitzaile arrakastatsu bat?
- Azken urte hauetan aldaketak egon dira harreman hezitzaileetan?

Kale hezkuntza eta sare gizartea

- Sare gizartean bizi garela uste duzu? Zergatik?
- Zer eragina dauka sare gizarteak harreman hezitzaileetan?
- Kale hezitzaileek sare sozialera moldatu behar dira?
- Nola moldatu daitezke?
- Zer ezaugarri positibo/negatibo dauzka sare gizarteak harreman hezitzailearekiko?
- Zein baliabide izan daitezke baliotsuak/kaltegarriak harreman hezitzailearekiko?

Eranskin 2

Documento de consentimiento informado

Este documento da lugar a una investigación para un trabajo de fin de grado, del grado de Educación Social, impartida por la Universidad Pública del País Vasco (UPV). El trabajo es una investigación a cerca de las nuevas comunicaciones en la educación de calle. Este trabajo está siendo formulado por la alumna de cuarto de carrera, Ane Karmele Menendez Ruiz de Angulo, con el motivo de conseguir una investigación sobre los cambios que han surgido los últimos años en las relaciones educativas en el contexto de la educación de calle a raíz de la Sociedad en Red.

Para esta investigación es necesario entrevistar a profesionales de la educación de calle que hayan ejercido dicha profesión en los últimos años. Participar es voluntario y el único fin de este trabajo es ayudar en la investigación. De esta forma, al ser una acción voluntaria, es necesario también el consentimiento de las personas entrevistadas.

Por otro lado, el manejo de la información establecida y ofrecida por los entrevistados será totalmente confidencial; los datos y la información no podrán ser vistos, compartidos o utilizados por personas ajenas al estudio ni para propósitos diferentes a los que establece dicho documento.

Por último, dado que el consentimiento es voluntario el retiro de este también podrá serlo. Puede darse la situación de querer cambiar de idea después y dejar de participar en la investigación. En ese caso, puede ponerse en contacto conmigo a través de esta dirección de correo electrónico: anekamenendez@gmail.com

En _____, a _____ de _____ del 2018.

Firma y nombre de la investigadora

Firma y nombre del participante

Baimena emateko dokumentua

Dokumentu honek, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Gizarte Hezkuntzako gradu amaierako lan baten ikerkuntza bat bideratzeko erreferentzia egiten dio. Gradu amaierako lan honek kale hezkuntzan ematen diren komunikazio forma berrien inguruan ikerketa burutzeko asmoa dauka. Modu honetan, Ane Karmele Menendez Ruiz de Angulo, Gizarte Hezkuntzako graduako ikasle batek, azken urteetan kale hezkuntzako testuinguruan harreman hezitzaileek Sare Gizartea dela eta jasan dituzten aldaketak ikertzeko helburuarekin lana aurkezten du.

Alde batetik, ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko azken urteetan kale hezkuntzan jardun duten hezitzaileak elkarrizketatzea beharrezkoa da. Honetan parte hartzea guztiz boluntarioa da eta honen helburu nagusia ikerketa burutzeko laguntza eskaintzea da. Modu honetan, ekintza boluntarioa denez, elkarrizketatuen baimena beharrezkoa da.

Beste aldetik, elkarrizketan elkarrizketatuek partekatutako eta eskainitako informazioa guztiz konfidentziala izango da; datuak eta informazioa ikerketan parte hartu ez duten pertsonak ez dute eskura izango eta dokumentuan agertzen diren helburuekin bat egiten ez duten ekintzetarako ez da erabiliko.

Amaitzeko, baimena ematea boluntarioa denez gero, honi uko egitea ere boluntarioa izango da. Nahiz eta lehenengo momentuan sinadura zein izena eman, geroago ideia aldatzeko aukera dago. Hau ematen bada, nirekin jar zaitezke kontaktuan korreo honen bitartez: anekamenendez@gmail.com

_____, 2018ko _____-aren _____(e)an.

Ikertzailearen izena eta sinadura

Partaidearen izena eta sinadura

Eranskin 3

Kategorien taula

Analisirako sistema kategoriala
<p>Kale hezkuntzako harreman hezitzailearen ezaugarri nagusiak: Atal honen barnean harreman hezitzaileen ezaugarri orokorrak, lehenengo kontaktuak eta kale hezitzailea nola erreferente bihurtzen den azaltzen da.</p>
<p>Sare Gizarteak kale hezkuntzako harreman hezitzaileetan eragindako aldaketak: Kategoria honetan kale hezitzaileek azken hamar urteetan zehar adingabeen harremanekin bizi dituzten aldaketak azaltzen dira. Batez ere, sare sozialek eragindako aldaketak azpimarratzen dira.</p>
<p>Sare Gizarteak kale hezkuntzako harreman hezitzaileetan eragindako indar-guneak eta ahuleziak: Atal honek kale hezitzaileek sare sozialekin dituzten harreman positiboak eta negatiboak azaltzen ditu.</p>
<p>Kale hezitzaileen erronkak Sare Gizartearen: Azken kategoria honetan Sare Gizartearekiko kale hezitzaileek dituzten erronkak eta beldurrak aipatzen dira.</p>